

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

406

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 23koa, Osasuneko sailburuordearena, 2022ko deialdian aurkeztutako osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak emateko dena. Lerroa: «Osasun-arloko ikerketa-jarduera areagotzea».

Osasuneko sailburuaren 2022ko apirilaren 5eko Aginduaren bitartez (2022ko apirilaren 25eko EHAA, 79. zk.), osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2022ko deialdia iragarri zen.

Agindu horrek 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurkeztu diren eskabideak lerro bakoitzeko prozedura desberdin bat hartuta izapidetuko dira (6. artikuluan adierazitakoarekin bat), eta bakoitza bere ebazpenarekin amaituko da. Osasuneko sailburuordeari dagokio agente eskatzaileek proposatutako gai guztiak erabakitzeko ebazpenak ematea, Balorazio Batzordeak proposatuta.

«Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko» lerroan aurkeztu diren eskabideak eta Balorazio Batzordearen proposamena aztertu dira, eta harekin ados egonik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean jasota dauden eskaerak onartzea, zeinak ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko aurkeztu baitira.

Bigarrena.– II. eranskinean jasota dauden eskaerak ukatzea, zeinak ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko aurkeztu baitira, eta horretarako egon diren arrazoiak ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabete epean, ebazpena EHAAn argitaratzen denetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan. Gainera, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere erabil dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 23a.

Osasuneko sailburuordea,
JOSÉ LUIS QUINTAS DIEZ.

I. ERANSKINA

IKERKETA SANITARIOAREN JARDUERA AREAGOTZEKO ESKAEREN ZERRENDA, 2022KO DEIALDIAN AURKEZTUTA ETA ONARTUTA

Espediente zenbakia	Pertsona hau areagotzea proposatzen da	Agente onuraduna	Dirulaguntza (eurotan)
2022222001	Ana Catalán Alcántara	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte	74.762,84
2022222004	Helena Barrasa González	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua elkarte	77.570,00
2022222005	Guillermo Ruiz Irastorza	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte	60.284,80
2022222006	Juan Carlos Gómez Esteban	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte	30.142,40
2022222007	Iñaki Zorrilla Martínez	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua elkarte	71.474,00
2022222009	Miguel Ángel Morán Rodríguez	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua elkarte	72.328,00
2022222010	Loreto Vidaur Tello	Biodonostia Institutua elkarte	62.940,51

Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzea, guztira: 449.502,55 euro

II. ERANSKINA

IKERKETA SANITARIOAREN JARDUERA AREAGOTZEKO ESKAEREN ZERRENDA, 2022KO DEIALDIAN AURKEZTUTA, ZEINAK UKATU BAITIRA OSASUN IKERKETA ZENTRO BAKOITZEKO FINANTZATU DAITEZKEEN ESKAEREN GEHIENEN KOPURURA IRISTEAGATIK, DEIALDI-AGINDUAREN 6.2 ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA (EHAA, 2022-04-25)

Espediente-zenbakia	Pertsona hau areagotzea proposatzen da	Agente eskatzailea
2022222002	Iñaki Martín Lesende	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte
2022222003	Javier de las Heras Montero	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte
2022222008	Maria Purificación López Peña	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua elkarte